

## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

### **2021eko OTSAILAREN 5ean, LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN TELEMATIKOKI EGINDAKO EZ OHIKO UDALBATZAREN AKTA**

2021eko otsailaren 5ean, goizeko 9.00 orduetan, Maite Arana Perez Alkate andrearen Lehendakartzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira, telematikoki eginiko bilkura honetan.

#### ZINEGOTZIAK:

Vicente Garcia Momblona  
Jose Antonio Rodriguez Rodriguez  
Mireia Ruiz Delgado  
Maialen Alonso Labandibar

BERE EZIN ETORRIA AZALTZEN DU: Jesus Maria Tejada Cantero eta Aitor Beistegui Fiallegas zinegotzia

Bertan dago, egintzaz fede emateko Ane Gomez Urteaga Idazkari-kontuhartzailea.

...//...

Alkate-lehendakari andreak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:


- 1. 2021 Ekitaldirako Udal aurrekontu orokorraren espedienteari hasierako onespina ematea, hala bada./ Aprobación inicial del expediente del presupuesto general del Ayuntamiento para el ejercicio 2021.**

.../...

#### **LEHENENGO PUNTUA**

#### **2021 EKITALDIRAKO UDAL AURREKONTU OROKORRAREN ESPEDIENTEARI HASIERAKO ONESPINA EMATEA, HALA BADA**

Ikusirik Udaleko behin behineko Idazkari-kontuhartzaileak prestatu duen 2021 ekitaldirako udal aurrekontuaren aurreproiektuaren espedientea, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak xedatutako moduan eta aurreikusitako eranskinekin. Ondorengo dokumentuekin osaturikoa:



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

- Larraulgo Udaleko aurrekontua.
- Plantila organikoa eta Lanpostu zerrenda.
- Aurrekontu orokorra betearazteko oinarriak.
- Memoria.
- Txostenak.
- Eranskinak.


Ikusirik Udaleko behin behineko Idazkari-Kontuhartzaileak 2021ko urtarrilaren 22an egindako txostenean dioena.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

### ERABAKITZEN DU:

LEHENA.- Larraulgo Udaleko 2021 urteko aurrekontu espedientea (Aurrekontua, Plantila Organikoa, Lanpostu zerrenda, Aurrekontu orokorra betearazteko oinarriak, memoria, txostenak eta eranskinak) behin-behingo onartzea **445.088,21** eurotako kantitatean. Horren desglosea kapituluetan honako hau izanik:

<b>SARRERAK</b>	<b>445.088,21€</b>
A) ERAGIKETA ARRUNTAK	
1. Kap. Zuzeneko Zergak	48.010,00
2. Kap. Zeharkako Zergak	2.000,00
3. Kap. Tasak eta bestelako zergak	41.350,00
4. Kap. Transferentzi arruntak	253.019,00
5. Kap. Ondare Sarrerak	3.000,00
B) KAPITAL-ERAGIKETAK	
6. Kap. Inbertsio errealak besterengan.	0,00
7. Kap. Kapital Transferentziak	17.709,21
8. Kap. Finantza aktiboak	0,00
9. Kap. Finantza Pasiboak	80.000,00



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

<b>GASTUAK</b>	<b>445.088,21€</b>
A) ERAGIKETA ARRUNTAK	
1. Kap. Pertsonal gastuak	103.790,00
2. Kap. Gastuak ondas.arrunt.eta zerbitz.	168.905,10
3. Kap. Finantza gastuak	100,00
4. Kap. Transferentzi arruntak	52.388,80
B) KAPITAL-ERAGIKETAK	
6. Kap. Inbertsio errealak	111.604,31
7. Kap. Kapital Transferentziak	8.200,00
8. Kap. Finantza aktiboak	0,00
9. Kap. Finantza pasiboak	100,00

BIGARRENA.- 2021eko aurrekontu espedientea bideratzeko izapidetzek aurrera eramatea.

HIRUGARRENA.- Udal Aurrekontu Orokorraren espedientea (Aurrekontua, Plantila Organikoa, Lanpostu zerrenda, Aurrekontu orokorra betearazteko oinarriak, memoria, txostenak eta eranskinak) 15 laneguneko epean jendaurrean jarriko da, interesatuek bidezko iritzitako errekurtsio eta alegazioak tarteratzeko, horretarako Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da. Inongo erreklamaziorik gabe igarotzen bada epea, behin-betiko onartutzat joko da aipatutako dokumentua, beste akordiorik hartu gabe.

*Beste gairik ez dagoenez, goizeko 9:24 orduak direnean Alkate andreak bilera amaitutzat ematen du, nik, behin-behineko Idazkaria naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.*